

GAZTEKLUBA TXARTELAREN ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

-BALDINTZA OROKORRAK-

Bilboko Udalaren Gazteria eta Kirol Sailak GAZTEKLUBA izeneko nerabeentzako aisia-programa antolatu du. Horretan, jarduera erakargarri ugari egiten dira 12 eta 17 urte arteko gazteek parte hartzeko eta haiek hezteko asmoz. Bilboko hainbat lekutan zein hiririk kanpo egiten dira, asteburuetan eta oporraldietan.

GazteKlubaren jardueretan parte hartzeko GAZTEKLUBA TXARTELA eduki behar da.

Haien produktuak edo zerbitzuak erabiltzeko Gaztekluba Txartela dutenei hainbat onura eskaini eta Erakunde Laguntzaile bilakatu nahi duten Erakundeek hurrengo Baldintzak bete behar dituzte:

Erakundeak aisialdiko balio osasungarriak errespetatu eta sustatu behar izango ditu GazteKluba Txartelaren bazkideei eskaintzen dien jarduera-motan.

- Erakundeak bere interesa azalduko dio Bilboko Udalari, eskaintzen dituen onurak zehaztuz. Bestalde, Gazteria eta Kirol Sailak egokiak diren baloratuko du, horretarako erakundearen ezaugarriak eta eskaintzen dituen onurak ikusita, Gazteklubaren berezitasunak kontuan hartuta.
- Lankidetzarako hitzarmen batean jasoko dira Erakundeak eta Udalak hitzartutako konpromisoak.
- Udalak Bilbao Gazte/GazteKLUBA webgunean ikusgai jarriko du erakunde laguntzailearen logotipo korporatiboa, eskaintako produktu edo/eta zerbitzuei buruzko informazioarekin batera.

Bilboko Udalak erakunde laguntzaileak hartutako konpromisoak betetzen direla egiaztatu ahal izango du. Erakunde horrek egindako zerbitzuen ondorioz, Bilboko Udalak ez du, inolaz ere, ezer ordaindu behar izango.